

<p>Ikasgaiaren izena Kodea. Proiektua: Telebistarako albistegiak</p>	<p>ECTS kredituak 6 ECTS Derrigorrezkoa</p>
<p>Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena BIGARREN MAILA - SEI HILEKOA</p>	<p>Modalitatea Presentziala</p>
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak</p> <p>- Oinarrizko kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko kulturaren ezaugarri nagusiak ulertzea, testu, genero eta formatu bisualak ikuspegi kritikitik interpretatzeko</p> <p>(Kodea)- Telebistari eta ikus-entzunezko kulturari buruz barneratutako ezagutzak komunikazio testuinguru berriei aplikatzea</p> <p>(Kodea) - Egoera konplexuei aurre egiteko ezagutzak eta prozedurak aplikatzea, simulatutako lan testuinguruetan</p> <p>(Kodea)- Gizartearen oinarri kultural eta soziopolitiko nagusiak aztertzea, ikus-entzunezko testuei buruzko gogoeta egiteko, ikuspegi etikotik</p> <p>(Kodea)- Lanak eta proiektuak modu akademikoan aurkeztea eta azaltzea, zenbait ikasle eta irakasleren aurrean, dagozkien komunikazio baliabideak behar bezala eta eraginkortasunez erabiliz</p> <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Ekintzailtza eta berrikuntza (Kodea)- Talde lana (Kodea)- Ikasten ikastea (Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p> <p>- Kompetentzia espezifikoak:</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko testuak eta irudiak behar bezala ordenatzea eta antolatzea, telebistarako informazio produktuetan</p> <p>(Kodea) - Telebistaren arloko baliabide teknikoak eta giza baliabideak planifikatzea eta antolatzea</p> <p>(Kodea) - Telebista kateen ekoizpen eta banaketa prozesuak, teknikak eta irizpideak identifikatzea</p> <p>(Kodea)- Irudien esanahi denotatiboak eta konnotatiboak identifikatzea eta aztertzea, eta irudien interpretazio eta analisi zuzena ahalbidetzen duten oinarrizko balio sinboliko eta kulturalak identifikatzea eta aztertzea</p> <p>(Kodea) - Ikus-entzunezko teknika narratiboak identifikatzea eta oinarrizko mailan aplikatzea</p> <p>(Kodea)- Telebistako entretenimendurako programetarako eskaletak, testuak eta gidoiak sortzea eta idaztea</p> <p>(Kodea) - Ikus-entzunezko testuak aztertzea, ikus-entzunezko obrak aztertzeke oinarrizko parametroak aintzat hartuta, eta mezu ikonikoak garai historiko jakin bateko baldintza soziopolitiko eta kulturalen testutzat eta emaitzat harturik</p>	

Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak

Mezuen ezaugarri nagusiak identifikatzea eta deskodetzea
Ikus-entzunezko testuak interpretatzea, dagokien parametro sozio-historiko edo kulturalak aintzat harturik
Ezagutza teorikoak aplikatzea telebistako informazio nahiz entretenimendurako programetan
Oinarrizko kode deontologikoak aplikatzea telebista programak lantzeko eta errealizatzeko
Telebistako proiektuak atontzea eta antolatzea, simulatutako lan egoeretan
Informazioaren gizarteari buruzko gogoeta egitea, ikuspegi etiko eta kritikotik, eta gizartearen beraren garapenarekin lotzea
Ahozko komunikazioaren komunikazio estrategia egokienak baliatzea, azalpen eta aurkezpen zuzenak eta eraginkorrak egiteko
Jendaurreko komunikazioaren arau nagusiak ezagutzea, beraldi eraginkorra egituratzeko eta aurkezteko
Telebistarako informazio produktuak lantzea, testu baliabideak eta baliabide bisualak modu egokian antolatuta
Telebistako lokuzioaren bereizgarriak identifikatzea, eta albistegietan behar bezala aplikatzea
Telebistako produkzioko giza taldea identifikatzea, eta sail bakoitzaren eginkizunak bereiztea
Telebistako programazioa lantzeko teknikak eta irizpideak identifikatzea
Programazioaren barruan telebista formatu egokia aukeratzeko produkzio irizpideak identifikatzea
Irudien balio sinboliko eta kulturalak identifikatzea
Irudi bisualak aintzat hartzea, haien esanahia eta kultura balioa abiapuntu hartuta, beren testuinguru historiko eta soziala kontuan izanik
Ikus-entzunezko narrazio tekniken oinarrizko elementuak identifikatzea eta aplikatzea: espazioa, denbora, erritmoa, soinua eta diegesia
Telebistaren komunikazio ezaugarriak identifikatzea
Informazioa egoki ordenatzea eta antolatzea, eskaleta idatziz
Testu idatziak eta ikus-entzunezkoak aztertzea, bai telebistako informazio nahiz entretenimendurako programetakoak

Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena

Ikasgai hau telebistako albistegi bat sortzean datzanez, Ikus-entzunezko komunikatzailea, Gidoigilea nahiz Telebistako zuzendaria eta errealizadorea profiletarako beharrezko gaitasunak garatuko dituzte ikasleek haren bidez.

Irakaskuntza-ikasuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko gaitasunekin duen harremana

MT1. Eskola magistralak
MT2. Kasuak aztertzea
MT4. Proiektuak

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

JP1- Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problemak edo proiektuak, lan kooperatiboa...
JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak
JP3. Eskola praktikoak
JP5. Tailerrak
JP6. Jarraipenerako tutoretzak
JP8. Praktiak ikastegian/Kanpoko bisitak
JP10. Simulazioak/Rol jokoak
JP11. Landa lana

Ez-presentzialak

JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako kompetentziak ebaluatzeko sistema

EB1. Talde lanak

EB5. Prestakuntza jardueretara joatea eta horietan modu aktiboan parte hartzea

Edukien laburpena

- Telebistako informazio ingurunearen azterketa
- Ikus-entzunezko komunikatzailearen profil profesionalaren azterketa
- Telebistako informazioaren ezaugarriak
- Informazio programen motak
- Nola komunikatu kameraren aurrean
- Eskaleta prestatzea
- Proiektua sortzeko proposatutako azterketari buruzko gogoeta eta proiekturako beharrezko osagaiak identifikatzea
- Telebistarako albistegi bat garatzea